



1/2003 GOMENDIOA, URTARRILAREN 20KOA, ERRENTERRIAKO UDALARI EGINA, ATZERA ITZUL DITZAN ISUN BATENGATIK ETA GARABIAK IBILGAILU BAT BIDETIK KENTZEAGATIK KOBRATU ZITUEN DIRU-KOPURUAK, EZ BAITZITUEN BETE ZIGORTZEKO PROZEDURAN EZARRITAKO TRAMITEAK.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan (...)k bidalitako kexa bat jaso genuen. Kexagileak zioenez, 2000ko ekainaren 6an, Errenteriako Udaltzaingoak salaketa-orri bat bete zuen (...) ibilgailuaren titularraren kontra, ustez Zirkulazioko Araudi Orokorra hausteagatik, eta ibilgailua herri-bidetik kendu zuen.

Egun berean, behin garabiaren tasa ordainduz gero, (...)k idatziz eskatu zuen itzul ziezaiotela diru-kopuru hori, eta bertan behera utz zedila zigortzeko prozedura, bere ustez ez baitzen lege-hausterik gertatu.

Abuztuaren 3an ordaindu zen salaketan lege-hausteagatik isun gisa adierazten zen diru-kopurua.

Aipatutako idazkiari erantzun ez zitzaionez gero, 2001eko otsailaren 26an berriro luzatu zuen eskabidea, baina orduan ere ez zuen erantzunik jaso.

2. Erakunde honek Errenteriako udalera jo zuen, honako hauei buruzko argibideak eskatzeko: egintzak nola gertatu ziren, kexagilearen nahia onartzeko prest zegoen ala ez eta hari zein erantzun emango zion.

Udalak bidalitako txostenean adierazten zenez, (...)ren kontra hasitako zigor-espedita bukatutzat jo zen, bada interesdunak bere borondatez ordaindu zuen, zigortzeko erabakia hartu baino lehen. Erabaki hori abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren 8.2 artikuluan oinarritu zuen -zigortzeko ahalmena erabiltzeko prozedurari buruzko Araudia ezartzen du horrek-.

Interesdunari ez zitzaion bukaera horren berri eman, nahiz eta isunaren kontra zegoela adierazi bere alegazioetan. Hala ere, 2001eko urrian, udalak azalpen-idazki bat bidali zion, otsailaren 26ko idazkiari erantzunez.

3. Erakunde honek berriro idatzi zion Errenteriako udalari, helarazi genizkion gogoeta batzuei buruzko balorazioa eskatzeko, azken batean, ez baitzeturren bat gogoeta horiekin.



Gogoetak

1. Errenteriako udalak zera ulertu zuen: 1398/1993 Errege Dekretuaren 8.2 artikulua arabera, isun gisa adierazitako kopurua prozedura erabaki baino lehen interesdunak bere borondatez ordaintzen bazuen, prozedura bukatutzat jo behar zela beti.

Gure iritziz, artikulua horrek ez du prozedura bukatzeko agindurik ematen, eta, gainera, artikulua beraren 1. paragrafoari lotuta interpretatu behar da. Honela dio paragrafo horrek: *"Iniciado un procedimiento sancionador, si el infractor reconoce su responsabilidad, se podrá resolver el procedimiento, con la imposición de la sanción que proceda."*

Horregatik, borondatezko ordainketaren bidez prozedura bukatutzat jo daiteke interesdunak egintzetan izan zuen erantzukizuna onartzen duenean, edo onartzen duela ondorioztatzen denean.

Halaxe adierazten da Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 77.2 artikulua abenduaren 19ko 19/2001 Legeak egin duen idazketa berrian. Artikulu horrek, nahiz eta kasu honetan ez den zuzenean ezarri behar -geroago jarri baitzen indarrean-, erreferentziatzen balio dezake, ezarri beharreko gainontzeko arauak interpretatzerakoan.

Artikulu horrek dioenez, salaketa-jakinarazpenean adierazitako isunaren kopurua ordaintzeak berekin dakar prozedura bukatzea, baldin eta salatutako pertsonak alegaziorik egin gabe bukatu bada alegazioak egiteko tramitea. Azken batean, espedientea ezin da bukatutzat jo interesdunak, isuna ordaindu arren, alegazioak aurkezten baditu.

Ezin zuen bestela izan, herritarren eskubideak bermatzea baitute ardatz nagusi bai administrazio prozedurazko araudi orokorrak eta zigortzeko berariazko prozedurek, bai jurisprudentziak eta Konstituzioak ere, hainbat epaitan erakutsi dutenez. Eskubideak bermatzeko ikuspegi horren arabera, beharrezko baliabideak eskaini behar dira, interesdunek kontrako iritzia agertzeko aukera izan dezaten.

Horren gainean, Konstituzio Auzitegiak zera adierazi zuen 1981ko ekainaren 8ko Epaian: *"los principios esenciales reflejados en el artículo 24 de la Constitución en materia de procedimiento han de ser aplicables a la actividad sancionadora de la Administración, en la medida necesaria para preservar los valores esenciales que se encuentran en la base del precepto y la seguridad"*



jurídica que garantiza el artículo 9 de la Constitución, porque la garantía del orden constitucional exige que el acuerdo se adopte a través de un procedimiento en el que el presunto inculcado tenga oportunidad de aportar y proponer pruebas y alegar lo que a su derecho convenga."

Honelako kasu batean, alegia, gertatu diren egintzen gainean ere eztabaida sortzen denean, prozedurarik ez izateak eskubideak bermatzeko tresna bat kentzen dio interesdunari -horixe baita prozeduraren biderapena-, eta defendatu ezinik uzten du.

Bestalde, eskuarki onartzen den printzipio batek dioenez, administrazioaren zigortzeko eskubidera hedatu behar dira interesdunari mesede egiten dioten edo beraren berme-sistema indartzen duten printzipio penalak. Horregatik, eta bi figuren artean dagoen antzogatik, hauxe pentsa daiteke: zigorbidean adostasun-tramiteak auzipetutako pertsonaren onespina eskatzen duen bezalaxe, administrazio-zigor bat ipintzerakoan ere kontuan izan beharko dela onespina hori, eta hori izan ezean, aurrera jarraitu beharko duela dagokion prozedurak.

Kexagilearen kasuan ez da erantzukizunik onartu, izan ere, (...)k idazki baten bidez jakinarazi zion udalari gertakariez zuen bertsioa, salaketa eragin zuen bertsioaz oso bestelakoa.

Udaltzainak egindako salaketak egiazkotasun presuntzioa izanik ere, isuna oinarritzen zuten alderdietatik edozein eztabaidatzeko eskubidea zuen interesdunak, baita frogak emateko ere; azken finean, espedientean aintzat hartuko zen kontrako proposamena egiteko eskubidea zuen.

Egia da alegazioen idazkia aurkeztu eta handik gutxira isuna ordaindu zela. Haatik, gertakari horretatik ez zegoen zertan ondorioztatu interesduna lehen aurka egindako bertsioarekin ados zegoenik, edo -beharrezko tramiteen bidez- erabaki batean eztabaidatu eta aztertzeko azaldu zituen argudioak aintzat hartzeari uko egiten zionik.

Nolanahi ere, alegazioen idazki hori egonik, ezinbestekoa zen bertako bertsioa egilearen oraingo iritziarekin kontrastatzea, eta hori egiteko modurik egokiena prozeduraren biderapena zen hain zuzen, otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan ezarritako moduan (dekretu horren bidez onartu zen Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasun alorreko Zigor-prozedurari buruzko Araudia).



2. Udalak adierazi du inolako jakinarazpenik eman gabe jo zuela bukatutzat espedientea.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak- zenbait xedapen ezartzen ditu prozedura bukatzeaz. Horrela, ondorio hori eragiten dute ebazpen bat emateak, atzera egiteak, eskabidean oinarritzat hartzen den eskubideari uko egiteak, iraungi delako adierazpenak, ustekabeen gertatutako zioengatik prozedura jarraitu ezinak, eta, hala gertatzen denean, ados jartze, hitzarmen, itun edo kontratuak.

Prozedura bukatutzat jotzeko aukera onartuko balitz ere -ez gaude horrekin ados, lehen esan dugunez-, bukaera hori gauzatzeko modu bakarra erabaki bat hartu eta jakinaraztea izango litzateke.

Abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren 8.2 artikulua -lehen aipatu dugu hori-, errekurtsioa jartzeko aukera ematen dio interesdunari. Aukera horretaz baliatzeko, ezinbestekoa da errekurtsio hori zein ekintzaren kontra jarriko den jakitea; beraz, edonola, jakinarazi egin behar da, gutxienez, prozedurari bukaera ematen dion erabakia.

Izan ere, betebeharrak orokor hori ezarrita dago azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikuluan: administrazioak berriazko ebazpena eman behar du prozedura guztietan, eta jakinarazi egin behar du, berdin diolarik prozedura nola hasi zen. Betebeharrak horretatik salbu geratzen dira Administrazioarekin hitzarmen edo ituna lortutako kasuak, edo aurrez jakinarazi bakarrik egin behar diren eskubideak gauzatzeari dagozkionak.

Kasu honetan ez zen ebazpenik eman, eta 2001eko urrira arte udalak ez zion interesdunari idatzirik igorri; gainera, idazki hori, dituen ezaugarriengatik, ezin da ebazpentzat jo.

Administrazioak bere erabakia ez jakinarazi izanak oso egoera kaltegarrian utzi du interesduna, bere nahiak defendatze aldera. Horregatik, bere eskubideak benetan bermatuko badira, ezin da onartu jokaera gisa isiltasuna erabiltzea, isiltasun hori zuritu nahian hainbat arrazoi alegatu arren.

Horrela, legeak ez du administrazioaren isiltasuna arau juridiko normal baten moduan arautzen, baizik eta -administrazioaren jardura egokia izan beharko lukeena ez bezalako jardueren ondorioz- herritarren eskubideak edukirik gabe ez geratzeko berme gisa taxutzen du. Jardura egoki hori legeak berak



diseinatzen du, eta honela gauzatzen da: interesdunak azaldutako gai guztiak eta prozeduraren ondoriozko beste batzuk espresuki ebatziz, eta zein errekurtsio jar daitezkeen, nola eta zein epetan adieraziz.

Horregatik, inolaz ere ezin da administrazioaren isiltasuna prozedura bukatzeko modutzat hartu, prozedurak zabalik jarraitzen baitu berariazko ebazpena eman arte.

Baieztapen hori prozedura orokorretan erabiltzen bada, arrazoi handiagoz hartu beharko da aintzat zigortzeko prozedura batean, izan ere, hor jokoan izaten diren eskubideak hain garrantzitsuak direnez, kontu handiz egin behar dira tramiteak.

3. Aurrekarietan adierazi dugunez, 2000ko ekainaren 6an hasi zen zigortzeko prozedura, udaltzain baten salaketa zela medio. Egun hartan bertan alegazioak egin ziren, eta abuztuaren 3an ordaindu zen isunaren zenbatekoa.

Harrezkero ez zen beste tramiterik egin 2001eko urrira arte; orduan idazki bat bidali zitzaion interesdunari, udalaren ustez espedientea lehenago bukatu zela adierazteko.

Gorago aipatutako arrazoiengatik, eta udalak berariazko ebazpena eman ez duenez gero, zigortzeko prozedura ez da amaitu.

Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 81. artikulua haxe adierazten du martxoaren 24ko 5/1997 Legearen idazketan: lege-haustea zigortzeko ekintzak preskribitu egiten duela egintzak gertatu ziren egunetik zenbatzen hasi eta hiru hilabetera.

Xedapen hori otsailaren 25eko 320/1994 Dekretuak garatzen du -Zigortzeko Prozedurari buruzko Araudia onartzekoak-, 18. artikuluan.

Kasu honetan sobera gainditu da arauak ezarritako epea, eta ez dago baliozko moduan ezarritako isunik. Hori dela eta, bidezkoa da isunagatik kobratutako diru-kopurua itzultzea.

Garabi zerbitzuagatik tasari dagokionez, hori kobratzea bidezkoa litzateke lege-haustea gertatu balitz; izan ere, eztabaidatzen ari den aparkatze-ekintza desegokia izango ez balitz, ez litzateke ibilgailua arrastaka eramateagatik kobratuko.



Interesdunak egintza horren gainean egin zituen, hain justu, alegazioak, eta ez zuen prozedura batean haiek eztabaidatzeko aukerarik izan. Bestalde, lege-haustea, gertatu balitz, preskribituta egongo litzateke. Arrazoi horiengatik, ordaindutako diru-kopurua itzuli egin behar dela uste dugu.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

1/2003 GOMENDIOA, urtarrilaren 20koa, Errenteriako udalari egina

Atzera itzul ditzala isun batengatik eta garabiak ibilgailu bat bidetik kentzeagatik kobratu zituen diru-kopuruak. Kopuru horiek (...) salaketa-orriaren bidez 2000ko ekainaren 6an hasi zen espedienteari dagozkio, (...) matrikuladun ibilgailua zela-eta.